

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko Zinegotzigoa  
Concejalía de Deportes y Vida Saludable



### **DONOSTIA KIROLAK KALISTENIA ETA PARCOUR PISTA BERRI BAT IREKI DU TXAPARRENEN**

Txaparrene pasealekuak baditu Donostia Kirolak jarritako kalistenia eta parcour pista berriak. Aurrekontu parte-hartzaileen bidez proposatutako ekimena da, eta 74.000 €-ko inbertsioa ekarri du.

Guztira, 250 m<sup>2</sup> dira, egunez egun gero eta eskari handiagoa duten hiri-kirolak egiteko. Kalistenia-pistak 12 elementu ditu, 100 m<sup>2</sup> hartzen dituen zoladura indargetzaile baten gainean banatuta. Barra paraleloak, dominatuetarako barrak, flexioetarako aparatuak, abdominalak, eraztunak eta abar instalatu dira.

Parcour pista, berriz, 150 m<sup>2</sup>-ko esparru batean eraiki da. Bertan, hainbat forma eta tamainatako hormigoizko 16 modulu instalatu dira, bai eta jarduera hori egiteko metalezko egitura bat ere.

Ping pong mahai bat ere jarri da inguruan.

Kalistenia eta parcourreko pista berri horiek, Donostia Kirolaren hiri-kirola sustatzeko estrategiari erantzuten diotenak, Intxaurrondo auzoko aire zabaleko kirol-gune handi bat osatzen dute, Txaparreneko frontoiak eta kirol-pistak dituen, baita ondoko Arrobitxulo parkeko pump track, parke bioosasungarria eta bolatokia ere, hori guztia bidegorriaren bidez komunikatuta.